



EBAZPENA, 2023KO OTSAILAREN 6KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, GIPUZKOAKO LURRALDE UNITATEAN IKUSKARITZA LANPOSTU BATERAKO DEIALDIA EGITEN DUENA ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA IKUSKARITZAN ALDI BATERAKO LANPOSTUAK BETETZEKO HAUTAGAIEN ZERRENDA ZABALTZEN DUENA.

Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean, EAE) Hezkuntzako Ikuskatzaitzaren ekainaren 28ko 98/2016 Dekretuaren 24. artikulua arautzen du Hezkuntzako Ikuskarien Kidegoko lanpostuak aldi baterako betetzeko prozedura. Zehazki, ezartzen du prozedura hori Ikuskari Nagusiaren ekimenari jarraikiz egingo dela, eta hark Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari igorriko diola eskaria, beharizanaren eta premiaren aldetik justifikatutako arrazoiak badaude, eta ondoko inguruabarretako bat gertatzen denean: (a) Hezkuntza Ikuskarien Kidegoko lanpostu hutsak egotea, horiek karrerako funtzionarioen bidez bete ezin direnean; (b) titularrak aldi baterako ordezteak.

Lanpostu horiek aldi baterako beteko dira zerbitzu-eginkizunetan dauden irakasle funtzionarioekin. Irakasle funtzionario horiek Hezkuntzako Ikuskarien Kidegoan sartzeko ezarritako baldintzak bete beharko dituzte. Kidego hori abenduaren 19ko 15/2008 Legearen 3.4 artikuluan dago araututa (15/2008 Legea, abenduaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako zenbait irakasle-kidego sortzen dituena, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoaren hamargarren xedapen gehigarriaren artikulua bakarrean, laurogei terminoan, xedatutakoaren bidez aldatua).

Deialdi honetan, Gipuzkoako Lurralde Unitatean (Donostiako egoitza) hutsik dagoen lanpostu bat betetzen da, Ikuskari Nagusiak 2022ko abenduaren 26an eskatu dion bezala deialdi hau egiten duen Zuzendaritza honi.

Era berean, prozesu honen bidez, Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuak aldi baterako betetzeko hautagaien zerrenda zabaltzen da. Zerrenda hori nahitaezko baldintzak betetzen dituzten, ezarritako gutxieneko puntuazioarekin eskatutako probak gainditzen dituzten eta zerrenda horretan parte hartzea aukeratzeko izangaiak osatuko dute.

Bestalde, garrantzitsua da kontuan hartzea Ikuskari Nagusiaren egitekoen artean dagoela ikuskari bakoitzari Ikuskaritza-Zonalde bat esleitzea, Lurralde bakoitzeko Ikuskaritzako Buruek proposatuta, ikuskariei entzun ondoren eta Lurralde Unitate bakoitzerako edo, Gipuzkoaren kasuan, haren bi egoitzetako bakoitzari egindako izendapena errespetatuta, 98/2016 Dekretuaren 11 e) artikuluan xedatutakoaren arabera. Ondorioz, lurralde-unitatez aldatu nahi duten ikuskariek ez dute deialdi honetan parte hartu beharko.

Ondorioz, eta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT



Lehenengoa.- Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da Gipuzkoako Lurralde Unitatean (Donostiako egoitza) ikuskaritza-lanpostu bat zerbitzu-eginkizunetan betetzea, baita ordezkapenen zerrenda zabaltzea ere, EAEko hiru lurraldeetako hezkuntzako ikuskari-lanpostuak aldi baterako betetzeko, 98/2016 Dekretuaren 25. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Zerrenda hori Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuta dago, esteka honetan, hain zuzen ere:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/langile_d_ikuskaritza_candidat/eu_def/adjunto_s/ikuskaritzako_ordezkapenen_zerrenda_eguneratzea_e.pdf

Deialdi honetara aurkezen diren pertsonak ordezkapenen zerrenda horretan sartuko dira, bigarren ebazpen-zatian adierazitako nahitaezko baldintzak betetzen badituzte, prozesua gainditzen badute eta deitutako ikuskaritza-lanpostua lortzen ez badute, , lehenetasun-ordenan, egindako deialdian lortutako guztizko puntuazioaren arabera.

Ordezkapenen zerrendan hautagairik badago (deialdi honetan gertatzen den bezala), parte hartu zen deialdian lortutako guztizko puntuazioaren arabera ordenatuko da zerrenda. Bi hautagaien edo gehiagoren arteko berdinketa badago puntuazio osoan, 98/2016 Dekretuaren 25.2 c) artikuluan ezarritakoaren arabera, baremoaren atal bakoitzean puntuaziorik handiena kontuan hartuta ebatziko da, hurrenez hurren, puntuazio hori, baremoan agertzen diren ordenaren arabera. Berdinketak jarraitzen badu, azpiataletan lortutako puntuazioa hartuko da kontuan, baremoan agertzen diren ordenaren arabera.

Deialdi hau ebatzi ondoren, ordezkapenen zerrenda Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko da, "Langileak/Ordezkapenatarako izangaiak/Hezkuntzako Ikuskaritza" atalaren barruan.

Bigarrena.- Betekizunak.

98/2016 Dekretuaren 24. artikulua bigarren zenbakian xedatutakoaren arabera, deialdi honetara aurkezen diren irakasle funtzionarioek Hezkuntzako Ikuskarrien Kidegoan sartzeko ezarritako baldintza berak bete beharko dituzte. Zehazki:

- EAEko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoren bateko karrerako funtzionarioa izatea.

Praktiketako funtzionario izendatuak prozesu honetatik kanpo geratuko dira, praktikaldiaren helburua hautatutako izangaien irakaskuntzarako gaitasuna egiaztatzea baita. Salbuespen horretatik salbuesita geratuko dira praktikak aukeran egiten ari direla, gutxienez zortzi urtez irakasle kidego bateko karrerako funtzionario gisa lan egin dutela egiaztatzen dutenak.

- Gutxienez zortzi urteko antzinatasuna izatea EAEko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoetan, hezkuntza-sistema publikoa osatzen duten ikastetxe eta mailletako edozeinetan, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoaren hamargarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

- Zerbitzu aktiboan egotea. Era berean, zerbitzu berezietan edo borondatezko eszedentzian daudenek parte hartu ahal izango dute, eta deialdi honen bidez jarduneko zerbitzura itzuliko dira, baldin eta eszedentzian egoteko gutxieneko epea bete badute.
- Doktore-titulua, unibertsitate-masterra, lizentziatura, ingeniari-titulua, arkitektura edo titulu baliokidea izatea.
- Hezkuntza Saileko 2. hizkuntza-eskakizuneko lanpostuak betetzeko gaituta egotea.
- Diziplina-zehapen irmorik ez izatea.
- Hautaketa-prozesu hau gainditu izana.

Hirugarrena.- Bazterketak eta uko egiteak.

2022/2023 ikasturterako IRALE programaren bidez liberatuta daudenak deialdi honetatik kanpo geratuko dira.

Zerbitzu-eginkizuna esleitu ondoren, oro har, ezingo zaio uko egin deialdi honen xede den ikasturtea amaitu arte.

Laugarrena.- Eskabidea eta dokumentazioa.

Deialdi honetan parte hartzeko eskaera HEZIGUNEA atariaren bidez egin beharko da (<https://hezigunea.euskadi.eus>), honako banner honetatik:

- “Zerbitzu-eginkizunak: HEZKUNTZAKO IKUSKARITZA”, eta beharrezkoa izango da eskatzailea aldeztatik identifikatzea (NAN/AIZ + pasahitza, edo XLNets-en erabiltzailea, lehendik baldin badago).

Eskabidearekin batera, HEZIGUNEA atariaren bidez erantsi beharreko dokumentazioa honako hau izango da, hala badagokio:

1. Baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

Soilik egiaztatu beharko dira agiri bidez Administrazio honetan interesdunaren fitxa pertsonalean behar bezala egiaztatuta ez dauden betekizunak.

2. Memoria, ondoren ahozko defentsaren bidez baloratzeko, II. eranskinean jasotako irizpideen arabera.

3. Deialdi honen I. eranskinean zehazten diren aurreikuspenen arabera alegatutako merezimenduak.

Ez dira baloratuko eskabidean aipatzen ez diren merezimenduak, ezta eskabidean bertan agertu arren behar bezala egiaztatzen ez direnak ere. Eskabideak aurkezteko epea amaitu arte egindako merezimenduak baino ez dira barematuko.



Administrazio honen esku ez dauden baldintzak edota merezimenduak egiaztatzeko, administrazio publikoetako organo eskudunek emandako jatorrizko dokumentuaren kopia autentikoa aurkeztu beharko da, kopia egin duen organoaren nortasuna eta edukia bermatuta, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 27. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hautagaiak eskabidean adierazi beharko du Gipuzkoako lurralde-unitatean (Donostiako egoitza) lanpostu hutsa betetzeko prozesuan parte hartu nahi duen edota Hezkuntza Ikuskaritzako hautagaien zerrenda zabaltzen parte hartu nahi duen.

Hautagaiak zerrenda zabaltzeko aukera aukeratzen badu, EAeko hiru lurraldeen artean egin beharreko deialdietarako lehentasunezko lurraldea adierazi beharko du, eta, subsidiarioki, beste lurralde gehigarri bat adierazi ahal izango du.

Lurralde-lehentasun horrek adierazten du hautagaiari lehentasuna emango zaiola lurralde horretarako deialdian, beste lurralde bat edo batzuk adierazi dituztenen aldean. Hautagaiak beti ordenatuta egongo dira EAeko Hezkuntzako Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretuaren 25. artikuluan jasotako kolektiboen lehentasun-ordenaren arabera (ordezkapen-zerrenda eta deialdi honetako puntuazio-ordena), nahitaezko betekizunak beteta eta memoriaren defentsan lortu beharreko gehieneko puntuazioaren % 50 lortuta.

Hautagaiak lurralde-lehentasunak aldatu ahal izango dituzte, Eusko Jaurlaritzaren erregistro elektronikoko orokorraren bidez (<https://eidas.izenpe.com/trustedx-authserver/izenpe/flowSelector.xhtml>), edozein unetan, deialdi honen behin betiko ebazpena argitaratzen denetik aurrera.

Bosgarrena.- Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea **2023ko otsailaren 7tik 20ra bitartekoa izango da, egun biak barne**. Eskabidea, memoria eta merezimenduak aurkezteko epea ezin da luzatu.

Balorazio Batzordeak interesdunei eskatu ahal izango dizkie baldintza bat behar bezala egiaztatutzat jotzeko edo alegatutako merezimenduak baloratzeko beharrezkoak diren argibide edo agiri osagarriak. Kasu horietan, izangaiari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean eskatutako informazioa osatzeko.

Seigarrena.- Balorazio-prozesuaren faseak.

Deialdi honek honako fase hauek izango ditu:

1. Pertsonak deialdiko nahitaezko baldintzetara egokitzen direla egiaztatzea, bigarren ebazpen-zatian xedatutakoaren arabera. Halaber, eskaerak garaiz eta behar bezala aurkeztu direla egiaztatuko da. Egiaztapen hori Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak egingo du.



2. Nahitaezko baldintzak betetzen dituztenei **memoriaren ahozko defentsa**rako deia egingo zaie, eta gehienez 10 puntu emango zaizkie.
1. Memoriaren ahozko defentsan baloratuko diren alderdiak II. eranskinean jasotakoak izango dira. **Defentsa hori gainditzeko, eskatutako gehieneko puntuazioaren % 50 lortu behar da gutxienez (10 puntu).**
2. Memorien ahozko defentsaren balorazioa egin ondoren, deialdi honetako Balorazio Batzordeak izangaiek alegatutako merezimenduak baloratuko dira.

Zazpigarrena.- Merezimenduen balorazioa.

Prozesutik kanpo geratuko dira gutxienez memoriaren ahozko defentsan eman daitekeen puntuazioaren % 50 ez duten pertsonak. Beraz, ez dira baloratuko prozesutik kanpo dauden pertsona horiek alegatutako merezimenduak.

Eskatzaileen merezimenduak deialdi honen I. eranskinean argitaratutako baremoaren arabera puntuatuko dira. Ebazpen hau argitaratu aurretik egindako eta behar bezala egiaztatutako merezimenduak bakarrik baloratuko dira.

Puntuazio osoan berdinketarik gertatuz gero, baremoaren atal bakoitzean puntuaziorik handiena kontuan hartuta ebatziko da, bertan ezarritako ordenaren arabera.

Zortzigarrena.- Balorazio Batzordea

Memoriaren ahozko defentsa eta izangaiek alegatutako merezimenduak baloratzeko eta ebazpen-proposamena egiteko, Balorazio Batzorde bat eratuko da. Honako kide hauek izango ditu:

- Hezkuntzako Sailburuordea, edo hark eskuordetutako pertsona; batzordeburua izango da.
- Hezkuntzako Ikuskari Nagusia.
- Ikuskatzaile zentral bat.
- Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketako teknikari bat; idazkari gisa, hitzarekin baina botorik gabe.

Sektorean behar adinako ezarpena duen sindikatu bakoitzeko ordezkari bat egon daiteke batzordean, eta hitza izango du, baina botorik ez.

Balorazio-batzorde horren osaera sail honen web-orrian argitaratuko da, eta kideak ezetsiak izan daitezke, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bederatzigarrena.- Deialdiaren behin-behineko ebazpena.

Balorazio Batzordeak, izangaiek deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatuz ondoren, eta memoriaren ahozko defentsaren balorazioa egin ondoren, deialdiaren behin-behineko ebazpena Sailaren web-orrian argitaratzeko proposamena helaraziko dio Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari, eta erreklamazioak egiteko hiru egun balioduneko epea irekiko da.

Berdinketa gertatuz gero, berdinketa hausteko lehen irizpidetzat karrerako irakasle funtzionario gisa emandako denbora hartuko da, eta, berdinketarekin jarraituz gero, irakasle gisa emandako zerbitzuen gutzitako denbora txikiena hartuko da bigarren irizpidetzat.

Behin-behineko ebazpena eta dagozkion zerrendak HEZIGUNEAREN atarian argitaratuko dira, interesdunek horren berri izan dezaten: <https://hezigunea.euskadi.eus>; bannerra: “Zerbitzu-eginkizunak: Hezkuntza Ikuskaritza”.

Hezkuntza Ikuskaritzako ordezkapenen zerrendan behin-behinean parte hartzen duen hautagaiak uko egin diezaioke zerrendan egoteari, baldin eta uko egite hori behin betiko ebazpena eman aurretik aurkezten bada.

Hamargarrena.- Behin betiko ebazpena

Erreklamazioak aztertu eta ebatzi ondoren, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak behin betiko ebazpena argitaratuko du, Sailaren web-orrian. Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzari, argitaratzen denetik hilabeteko epean.

Hezkuntza Ikuskaritzaren behin betiko ebazpena eta ordezkapenen zerrendaren luzapena Sail honen web orrian argitaratuko dira, hurrenez hurren, honako ibilbide hauetan:

- Langileak/Kudeaketa/Irakasleak/Zerbitzu-eginkizunak. 2023-2024 ikasturtea.
- Langileak/Ordezkogaiak/Hezkuntzako Ikuskaritza

Halaber, prozedura honetan interesa duten pertsonen jakinaraziko zaie HEZIGUNEA atariaren bidez (<https://hezigunea.euskadi.eus>), bannerretik: “Zerbitzu-eginkizunak: Hezkuntza Ikuskaritza”.

Hamaikagarrena.- EAEko hiru lurraldeetan hezkuntzako ikuskari lanpostuak aldi baterako betetzeko ordezkapen-zerrendaren funtzionamendua.

1.- Zerrenda horretan parte hartzeko, ebazpen honen bigarren oinarrian xedatutakoa bete beharko da.

2.- Hautaketa-prozesu hau gainditu duten hautagaiak sartuko dira zerrendan, lortutako guztizko puntuazioaren arabera ordenatuta.

3.- Deialdiak zerrendan ezarritako ordenaren arabera egingo dira. Ordena hori Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzari buruzko ekainaren 28ko 98/2016 Dekretuaren 25. artikuluan jasotako kolektiboen lehentasun-ordenari egokituko zaio.

4.- Hautagaiak eskabidean adierazi beharko du EAEko hiru lurraldeen artean lehentasunezko lurraldea egin beharko diren deialdietarako, eta, subsidiarioki, beste lurralde gehigarri bat adierazi ahal izango da.

5.- Deialdiak, hautagaiak lehenetsitako lurraldeak kontuan hartuta egingo dira.

6.- Zerbitzuak ematen dituen lurralde berean lanpostu libre bat betetzeko deia egiten duenak uko egiten badio, dagozkion zerrendatik kanpo geratuko da. Hala ere, zerrenda osatzen duten eta Gipuzkoako lurraldean zerbitzuak ematen dituzten hautagaiak uko egin ahal izango diete Eibarren egoitza duten ikuskaritzako lanpostu hutsei. Kasu horietan, uko egiteak ez du ekarriko zerrendetatik kanpo geratzea.



7.- Deialdia egiten bada eta hautagaiak ikastetxe bateko zuzendari-kargua betetzen duela egiaztatzen badu, bete beharreko ikuskaritza-lanpostuari uko egin ahal izango dio, justifikatuta, ordezkapenen zerrendatik kanpo geratu gabe.

Hamabigarrena.- Izendapena eta luzapenak.

Karrerako funtzionarioei, ordezkapen-zerrendako kide izanik, hezkuntza-ikuskaritzan lanpostu bat eskaintzen bazaie, zerbitzu-eginkizunetako izendapen bat egingo zaie, aldi baterako premiaren egunetik dagokion ikasturtea amaitu arte.

Zerbitzu-eginkizun horien iraupena, 98/2016 Dekretuaren 24. artikulua 3. apartatuan ezarritakoaren arabera, ezin izango da bi urte baino gehiagokoa izan, eta beste bi urtez luzatu ahal izango da, aldez aurretik ikuskapen-lanaren ebaluazio positiboa egin ondoren, horretarako ezartzen den prozeduraren bidez. Beraz, luzatu ahal izango dira, adierazitako denbora-mugarekin eta hurrengo ikasturterako zerbitzu-eginkizunen luzapenen deialdian ezarritakoaren arabera.

Bestalde, eta 98/2016 Dekretuaren 24. artikulua 5. puntuak adierazten duen bezala, zerbitzu-eginkizunaren indarraldian Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarrien Kidegoko langileren bat lanpostura itzuliko balitz, baldin eta eszedentzian badago, atxikita badago, izendatuta badago edo aldi baterako beste lanpostu bat betetzen badu, lanera itzultzearen ondorioz zerbitzu-eginkizuna utziko duen pertsona, eragindako lantokian daudenen artean, Hezkuntzako Ikuskaritzan emandako zerbitzu-denbora laburrena duena izango da.

Berdinketa gertatuz gero, berdinketa hausteko lehen irizpidetzat karrerako irakasle funtzionario gisa emandako denbora hartuko da, eta, berdinketarekin jarraituz gero, irakasle gisa emandako zerbitzuen gutzizko denbora txikiena hartuko da bigarren irizpidetzat.

Hamahirugarrena.- Administrazio-prozedura.

Ebazpen honetan prozeduraren arloan arautzen ez denerako, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea aplikatuko da, baita Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea ere.

Hamalagarrena.- Datuen babesari buruzko informazioa.

Zure datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Langileak kudeatzea.

Arduraduna: Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: Irakasle eta irakasle ez diren langileen kudeaketa.

Legitimazioa:

- Tratamendua beharrezkoa da, interesduna alderdi duen kontratu bat betearazteko.
- Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.
- 2/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Unibertsitateko kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzkoa.
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.



Hartzaileak:

- Estatuko Administrazioako beste organo batzuk.
- Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Informazio osagarria: Gure web-orrian kontsulta dezakezu Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua: www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/048100-cap2-eu.shtml

Araudia:

- Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf).
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

HELEGITEAK

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko otsailaren 6an

Blanca María Guerrero Ocejo
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA



I. ERANSKINA

BAREMOA: GEHIENEZ 30 PUNTU. Kontzeptuak		Puntuazio partziala	Gehieneko puntuazioa
1. ESPERIENZIA PROFESIONALA			6
1.1	Zuzeneko irakaskuntza-espereintzia hezkuntza-sistema publikoa osatzen duten ikastetxe eta mailetan, eskakizun gisa eskatzen diren zortzi mailak gainditzen baditu.	0,02 puntu hileko	3
1.2.	Hezkuntzako ikuskatzaile gisa emandako zerbitzuak.	0,20 puntu hileko	3
1.3	COP, IIHII/Ingurugela, Berritzegune, ISEI-IVEI edo IDC laguntza-zerbitzuetan edo beste hezkuntza-administrazio bateko laguntza-zerbitzuetan emandako zerbitzuak.	0,04 puntu hileko	2
2.- ZUZENDARITZA-KARGUAK			6
2.1	Ikastetxe publiko bateko zuzendari-kargua betetzea.	0,1 puntu hileko	6*
	Ikastetxe publiko batean zuzendari-kargua betetzea ebaluazio positiboarekin 22/2009 Dekretuaren arabera araututako prozesuaren ondoren.	0,2 puntu hileko	Oharra: ezin izango da aldi bera kontabilizatu bi ataletan.
2.2.	COP, IIHII/Ingurugela, Berritzegune, ISEI-IVEI edo IDC laguntza-zerbitzuetan edo beste hezkuntza-administrazio bateko laguntza-zerbitzuetan zuzendari-kargua betetzea.	0,05 puntu hileko	2
2.3	Ikastetxe publiko bateko eguneko edo gaueko idazkari edo ikasketa-buru eta zuzendariondoko kargua betetzea.	0,04 puntu hileko	2*
	Ikastetxe publiko bateko idazkari edo ikasketa-buru kargua betetzea, ebaluazio positiboarekin 22/2009 Dekretuaren arabera araututako prozesuaren ondoren.	0,08 puntu hileko	Oharra: ezin izango da aldi bera kontabilizatu bi ataletan.
3. MEREZIMENDU AKADEMIKOAK			3
3.1	Hezkuntza Ikuskaritzako lan-eskaintza publikoetako batean oposizio-fasean eskatutako gutxieneko puntuazioa lortzeagatik.		2
3.2	Katedraduna izatea.		1
3.3	Doktore-titulua izatea.		1
3.4	Betekizun gisa alegatutakoak ez diren beste unibertsitate-titulu batzuk izatea.	0,50 puntu titulazio bakoitzeko	1
3.5	Hizkuntzak (gaztelania eta euskara izan ezik): gehienez 2 puntu. Puntu hau langileen espedienteen agertzen ez bada, honako titulu edo ziurtagiri hauetako baten kopia autentikoa aurkeztu beharko da:	- C2 titulua: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko. - C1 titulua: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko. - B2 titulua: puntu 1 hizkuntza bakoitzeko. - B1 titulua: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.	2



	<p>a) Euskal Autonomia Erkidegoko eta beste autonomia-erkidego batzuetako hizkuntza-eskola ofizialek emandako tituluak edo ziurtagiriak.</p> <p>b) Maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuaren eranskinean agertzen diren tituluak edo ziurtagiriak (2012ko maiatzaren 29ko EHAA).</p>		
4. FORMAKUNTZA			3
4.1	Hezkuntza-ebaluazioarekin lotutako prestakuntza.	0,02 puntu orduko	1
4.2	Eskola-antolaketarekin, ikastetxeen ikuskapenarekin eta kalitatea kudeatzeko sistemekin lotutako prestakuntza.	0,02 puntu orduko	1
4.3	Curriculumeko arloekin, oinarrizko gaitasunekin eta, oro har, didaktikarekin lotutako prestakuntza.	0,01 puntu orduko	1
4.4	Hezkuntza-orientazioarekin, aniztasunaren arretarekin, tutoretzarekin, bizikidetzarekin, gatazken ebazpenarekin eta berdintasunaren sustapenarekin, hezkidetzarekin eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioarekin lotutako prestakuntza.	0,01 puntu orduko	1
4.5	IKTekin lotutako prestakuntza.	0,01 puntu orduko	1

5. HITZALDIAK ETA ARGITALPENAK			2
5.1	Irakasleak prestatzeko ponentziak edo ikastaroak emateagatik.	0,10 puntu orduko	2
5.2	<p>Lanpostuaren edukiarekin zerikusia duten argitalpenengatik.</p> <ul style="list-style-type: none"> Egilearen arabera Egilekidetzagatik edo egile-taldeagatik 	<p>0,5</p> <p>0,25</p>	2
6. MEMORIAREN AHOZKO DEFENTSA			10
6.1	<p><u>Memoriaren ahozko defentsa.</u></p> <ul style="list-style-type: none"> Ikuskapen-lanari buruzko memoriak, gehienez 15 orrialde izango ditu alde batetik. 15 minutu izango dira memoria defendatzeko, eta 15 minutu balorazio-batzordeak edukiari buruzko galderak edo jarduerak egin ahal izateko. 		10



1.- Ohar orokorrak

- Hilabetetzat 30 eguneko aldia hartuko da. Hilabete batera iristen ez diren aldi bakoitzeko egunak batu egingo dira, eta emaitza zati 30 eginda ateratzen den emaitza hilabete osoei gehituko zaie.

2.- Merezimendu akademikoak

- Langileen espedientean agertzen ez diren merezimendu gisa aurkeztutako tituluen kopia autentikoa edo dokumentu elektronikoa aurkeztuko dira.
- EAeko Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan alegatzen eta jasotzen diren lizentziaturak, ingeniartzak, arkitekturak edota graduak ofizioz baloratuko dira
- Ez dira kontuan hartuko unibertsitateko titulazioak, edo erdi-mailakoak, edo diplomaturakoak, edo aipamenak, edo lehen ziklokoak, baldin eta gradua, lizentziatura lortzeko balio izan badute, edo beste lizentziatura bat, edo gradua, aldez aurretik balioetsita.

3.- Formakuntza

- Prestakuntzaren atalean, Hezkuntza Sailak 10 orduetik gorako ziurtagiri ofizialak eta homologatuak soilik baloratuko dira.

4.- Hitzaldiak eta argitalpenak

Hitzaldiei dagokienez, ziurtagiri ofizialak eta Hezkuntza Sailak homologatutakoak baloratuko dira (emandako ordu-kopuruarekin, hala badagokio), betiere eskeinitako lanpostuarekin edo eginkizunekin zerikusia badute.

Argitalpeneen inguruan, ez dira baloratuko azaroaren 2ko 2984/1972 Dekretuan (abenduaren 12ko 2063/2008 Errege Dekretuak aldatua) ezarritakoari eutsiz ISBN edo, hala balegokio, ISSN edo ISMN ematera behartuta dauden argitalpenak baina halakorik azaltzen ez dutenak; era berean, ez dira baloratuko egilea eta argitaratzailea pertsona bera diren argitalpenak.

Inola ere ez dira baloratuko lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzean egindako hitzaldiak eta argitalpenak.



II. ERANSKINA

MEMORIAREN BALORAZIOA AHOZKO DEFENTSAREN BIDEZ

Memoriaren ahozko defentsa **gehienez 10 puntura arte kalifikatuko da.**

Hautagaiak **15 minutu izango ditu memoria defendatzeko.**

Memoria defendatu ondoren, Balorazio Batzordeak **15 minutu izango ditu egindako memoriaren defentsaren edukiari buruzko galderak edo jarduerak egiteko.**

Memoriaren defentsa, ahozko defentsaren bidez, honako egitura honen arabera egingo da:

- a) Ikuskapena arautzen duen araudia eta indarrean dauden hiru urteko eta urteko planak ezagutzea. (puntu 1 gehienez).
- b) EAEko ikuskaritzaren antolaketa-egitura eta bete beharreko eginkizunak ezagutzea. (puntu 1 gehienez).
- c) Indarrean dauden EAEko ikuskapen-planen eta arauak hezkuntza-ikuskaritzari esleitzen dizkion eginkizunen arteko harremanari buruzko azterketa eta balorazio arrazoitua. (0,75 puntu gehienez).
- d) Ikuskaritzaren eginkizunak garatzeko beharrezkoak diren gaitasun tekniko-profesionalak, sozialak eta etiko-profesionalak identifikatzea. Balorazio arrazoitua. (1,5 puntu gehienez).
- e) Ikastetxeen oinarrizko hezkuntza-araua eta antolamendu-egitura ezagutzea. (0,75 puntu gehienez)
- f) Ikuskaritzak esku hartzea ikastetxeetako hobekuntza-prozesuetan. Ikuskaritzaren zeregina ebaluazio- eta aholkularitza-prozesuetan. (1,5 puntu gehienez).
- g) Ikuskaritzak eskubideak bermatzeko eta betebeharrak betetzeko egiten duen ekarpenaren berri izatea, eta, bereziki, ikasleek kalitatezko hezkuntza eta bizikidetzaren giro positiboa izateko duten eskubidearen berri izatea. Ikuskaritzak ekitatea eta berdintasuna sustatzen laguntzea. (1,5 puntu gehienez).
- h) Ikuskapen Zerbitzuan parte hartzea, laguntzea eta berritzea. (puntu 1 gehienez).
- i) Administrazioako beste zerbitzu batzuekiko lankidetzaren eta komunikazio-prozesuak. Ikuskapen-txostena, oinarrizko egitura. (puntu 1 gehienez).

Deskribatutako atal bakoitzean, Balorazio Batzordearen galderen eta jarduketan fasean Hezkuntzako Ikuskaritzan planteatutako egoera zehatzen aurreko erantzunaren kalitatea eta alderdi teknikoak baloratuko dira.



GARRANTZITSUA

1. **Defentsa euskaraz egingo da.** Hezkuntza Ikuskaritzaren helburua da euskara ere benetako lan-hizkuntza izatea, Eusko Jaurlaritzaren azken urteetako irizpide orokorren eta euskararen erabilera normalizatzeko plan orokorren arabera. Halaber, 98/2016 Dekretuak, besteak beste, ezartzen du euskararen erabilera sustatuko dela Hezkuntzako Ikuskaritzaren barne-komunikazioetan eta haren eta hezkuntza-komunitateko beste kide batzuen arteko harremanetan. Horregatik guztiagatik, nahitaezkoa da ahozko defentsa euskaraz egitea.
2. **Izangaiak euskarri digitala erabili ahal izango du bere memoria defendatzeko.** Horretarako, ordenagailu bat, proiektagailu bat eta Interneterako konexioa jarriko dira bere eskura. Bestalde, hautagaiak egokitzen jotzen duen material osagarria erabili ahal izango du.